

Gipuzkoako Bazkondeak eta BIC Gipuzkoak ekintzailtza sustatzeko akordioa sinatu dute

Gipuzkoako Bazkondeak eta BIC Gipuzkoak ekintzailtza sustatzeko lankidetzak akordioa sinatu dute enpresa berrien bultzada eragiteko ekintzak indartzeko, ekimen berrien inkubazioa sortzeko eta ekintzaileei erabateko laguntza eskaintzeko. Itun hau, Gipuzkoan zehar ekintzailtza inguruan ematen ari diren aktibitate ezberdinak sendotzera eta osotzera dator eta enpresa nabarmenen parte-hartzea du.

Donostia - 2019ko urtarrilaren 17a – Jabier Larrañagak, BIC Gipuzkoako presidentea eta Pedro Esnaolak, Gipuzkoako Bazkondeko presidentea lurraldearentzat akordio garrantzitsua izango dena sinatu dute “bereziki garrantzitsua da ekintzailtza ekimenak eta enpresa aktibitate berrien garapenak indartzeko gaitasun berriak ekartzen dituelako”.

Akordio honek duen oinarritzko helburua honako hau da: lurraldean garatzen diren arrakastako ekintzailtza ekimenen aukerak handitu. Sortu berri diren enpresek eta ekintzaileek komertzial planifikazioan, nazioartekotzean eta marketin digitalean adituak diren laguntza jasoko dute. Horrez gain, Gipuzkoako Bazkondeak eta BIC Gipuzkoak sortutako proiektu berrien, ekintzaileen eta Gipuzkoako enpresen eta inbertsoreak izan daitezkeen arteko harremana erraztuko dute.

Hitzarmenak lurraldearen ekintzailtza aktibitatea sustatzeko hainbat ildo finkatzen ditu. Gipuzkoako Bazkondeak komertzial planifikazioan, nazioartekotzean eta marketinean adituak diren langileak jarriko ditu ekimen honen esanetara laguntza lanak egiteko. Horrez gain, hitzarmena indarrean dagoen bitartean, lurraldeko enpresen eta ekintzaile proiektuen harremana bideratuko du inbertsore izan daitezkeenak identifikatzeko eta planteatutako negozio modeluen onarpena kontrastatzeko merkatu interesak kontutan hartuta.

Ekimen guztiak BIC Gipuzkoarekin koordinatuta egingo dira, eurak direlako ekintzaile proiektu bakoitzean burutu behar diren lan ildo ezberdinen ikuspegi orokor bat dutenak. Bi erakundeek, Gipuzkoako Bazkondeak eta BIC Gipuzkoak, elkarlanean lankidetzak akordio honek eskaintzen dituen aukerak hoberen aprobetxatuko dituzten ekintzailtza ekimenak identifikatuko dituzte. Gipuzkoako Bazkondeak hitzarmen honen barruan egingo dituen aktibitate guztiak Erantzunkizun Sozialeko ekintzak izango dira, Gipuzkoako enpresa esanguratsuenetako batzuk finantzatutako ekintzak, hala nola, **Ampo, ArcelorMittal, Avia, CAF Power Automation, Indar, Irizar, Kutxa, Okin, Orona, Roxtec** eta **Ternua Group**.

Prentsa Oharra

BIC Gipuzkoa

Hogeitabost urte dira BIC Gipuzkoa Gipuzkoako ekintzailera proiektuen laguntzan eragile aktibo bat dela. BIC Gipuzkoak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta SPRI-k osatzen duten erakundeak, enpresa berriak edo oinarri teknologikoa dutenen sormen prozesuan laguntzen du. Hogeitabost urte hauetan BIC Gipuzkoak bere balore estategikoa egonkortu du ekintzailera ekosisteman, 800 proiektu lagunduz, 400 enpresa berri sortuz eta 100 baino gehiago dibertsifikatuz.

Zifra hauek, Gipuzkoako ekintzailera hazkunde jarrai batean dagoela adierazten dute eta lurraldearen lehiakortasunari egindako ekarpenaren onarpena izan dutela erakusten dute. BIC Gipuzkoak lagundutako ekimen guztiek berrikuntza maila altu bat dute eta merkatu aukera handiak izaten dituzte. Hauek guztiak, aukera handiko negozio modeluak izaten dira eta sektore emergenteetara bideratuako etorkizuneko apustuak suposatzen dute.

Informazio gehiago:

Irune Bengoetxea
ibengoetxea@camaragipuzkoa.com
943 000 310 / 688884347